


Katillotxuko Multzo Megalitkotik egiten den ibilaldia Urdaibaiko Ibilbide Megalitikoaren lehen zatia da. Bertan Katillotxuko mendikatetxea ikusiko dugu. Mendikatetxean, 5 trikuharrik osatutako multzo arkeologikoa bisitatu ahal izango dugu, eta Mundakako itsasadarra itsasoratzen den lekuaren ikuspegi bikaina ikusi ahal izango dugu. Proposatutako ibilbidea Mundakan abiatzen da, PR-BI 176tik (Laminen Ibilbidea), Sukarrietarantz. Bertan bat egiten du GR 98arekin (Urdaibaiko Bira) eta GR 123arekin (Bizkaiko Bira) eta biek batera, Munitiz auzotik eta Abaroako baserrietatik, Arribietako mendixkara igotzen dute, Katillotxutik hegoaldera. Katillotxuko mendikatetxea iparralderantz egin ondoren eta Katillotxu II-ko tumulutik igaro eta gero, interpretazio panelak dituzten 2 monumentu aurkituko ditugu: Katillotxu I eta Katillotxu V. Monumentu horien iparraldean, landa barruan, Katillotxu VI dugu. Bertatik hasiko gara Goitizeko auzorantz jaisten. Puntu horretara helduta, Mundakara Arketatik edo PR-BI 176tik itzuli ahal izango gara, Lamiarango harana gurutzatuz. Beste aukera bat Bermeora jaitea izan daiteke, GR 98-GR 123aren bidetik, Demiku auzotik igaroz.



KATILLOTXU V

El itinerario por el Conjunto Monumental de Katillotxu es la primera parte de la Ruta Megalítica de Urdaibai. En él recorreremos el cordal de Katillotxu, donde podemos visitar un conjunto arqueológico de 5 dólmenes, y disfrutar de una extraordinaria vista de la desembocadura de la ría de Mundaka. El itinerario propuesto parte de Mundaka por el PR-BI 176 (Sendero de las Lamas) en dirección a Sukarrieta. Allí conecta con el GR 98 (Vuelta a Urdaibai) y el GR 123 (Vuelta a Bizkaia) y juntos ascienden por el barrio de Munitiz y caseríos de Abaroa hasta el collado de Arribieta, al Sur de Katillotxu. Tras recorrer el cordal de Katillotxu en dirección Norte, y pasar por el túmulo de Katillotxu II, en la cima nos encontramos con los 2 monumentos que disponen de paneles de interpretación: Katillotxu I y Katillotxu V. Al Norte de éstos, dentro del área de pastizal, se localiza Katillotxu VI, desde donde se puede iniciar el descenso hacia el barrio de Goitiz. Desde este punto, podemos regresar a Mundaka por Arketa o por el PR-BI 176, cruzando el valle de Lamiaran. También podemos optar por descender a Bermeo por el trazado del GR 98-GR 123, pasando previamente por el barrio de Demiku.



KATILLOTXU I

LA RUTA MEGALÍTICA DE URDAIBAI (I)

Itinerario por el

Conjunto Monumental de Katillotxu



(1) Katillotxu V burualdeko harlauza / Losa de cabecera de Katillotxu V



AGIRI
Arkeologia
Kultura Elkartea
Asociación Cultural de Arqueología

208 Postakutxa - 48300 Gernika - www.arkeoagiri.org

URDAIBAICO IBILBIDE MEGALITIKOA (I)

Ibilaldia

Katillotxuko Multzo Megalitkotik



KATILLOTXU V



AGIRI
Arkeologia
Kultura Elkartea
Asociación Cultural de Arqueología

208 Postakutxa - 48300 Gernika - www.arkeoagiri.org

Katillotxu I trikuharria: neolitoko hilobi kolektiboa

El dolmen de Katillotxu I: una tumba colectiva neolítica

Katillotxu I trikuharria 1989an aurkitu zuten AGIRI Arkeologia Elkarte kideek, eta haren indusketa arkeologikoa 2004an eta 2005ean burutu zen, J.C. López Quintana eta A. Guenaga Lizasuk zuzenduta.

El dolmen de Katillotxu I fue descubierto en 1989 por miembros de AGIRI Arkeologia Elkarte y su excavación arqueológica se llevó a cabo en 2004 y 2005, bajo la dirección de J.C. López Quintana y A. Guenaga Lizasus.



Ganbararen kontserbazio egocaren xehetasuna. / Detalle del estado de conservación de la cámara.

Arquitectura 1

Katillotxu I monumentuak 18 metroko diametroa eta 0,90 metroko altuera ditu. Hilobi ganbarak bere egituraren 8 harlauza kontserbatzen ditu, eta oin plano laukizuzen-polygonaleko barrutia eratzen du, iparretik hegora orientatua, 2,5 x 1,5 metrokoa. Monumentu osoa, tumulua eta hilobi ganbara, hareharrizko harkoskoz eraiki zen batez ere, eta ongi antolaturiko barne egitura erakusten du. Hilobi ganbara, posizio azpi-bertikalean dauden harkosko handien koroak mugatzen du. Tumulua, posizio azpi-horizontalean jarri ziren, elkarren artean inbrikaturik dauden eta monumentuaren erdialderantz nolabaiteko okerdura duten lauzen bitartez eraiki zen.

El monumento de Katillotxu I mide 18 m de diámetro por 0,90 m de altura. La cámara funeraria conserva 8 losas de su estructura, definiendo un recinto de planta rectangular-polygonal, orientada de Norte a Sur, y con unas medidas de 2,5 por 1,5 metros. La totalidad del monumento, túmulo y cámara sepulcral, se construyó esencialmente a base de bloques de arenisca, mostrando una estructura interna bien organizada. La cámara sepulcral está delimitada por una corona de grandes bloques en posición subvertical. El túmulo se construye a base de losas colocadas en posición subhorizontal, imbricadas entre sí y con una ligera inclinación hacia el centro del monumento.



Ebakidura estratigrafikoa hegoaldeko sektorean. / Corte estratigráfico en el sector Sur.

Material arkeologikoa 2 Los materiales arqueológicos

Katillotxu I-eko indusketan ez da giza aztarnarik agertu, lurzorua azidotatua dela eta. Hala ere, material ez galkorrekin egindako hilobi ostilamendu askotarikoak berreskuratu da, eta horrek hilobiaren talde izaera erakusten digu. Suharrarian landutako materialen artean azpimarragarriak dira forma geometrikoak (hirukiak eta trapezioak) duten armadurak edo gezi-puntak eta ijekiak edo aiztoak. Leundutako industria, lanketa eta leunketa teknikak erakusten dituen suharrizko aizkora batek osatzen du. Apaingarrien artean hainbat lepoko-ale aipatu behar dira. Ale horien artean gehien ikusten ditugunak disko itxurakoak dira. Halaber, apaingarri gabeko zeramizko ontzien zatiak ere erregistratu dira.

En la excavación de Katillotxu I no han aparecido restos humanos debido a la acidez del suelo. Sin embargo, se ha recuperado un variado ajuar funerario, elaborado sobre materiales no perecederos, que certifica el carácter colectivo de la tumba. Entre los materiales tallados en sílex, destacan las armaduras geométricas (triángulos y trapecios) y las láminas o cuchillos. La industria pulimentada se compone de un hacha en sílex que combina las técnicas de talla y pulimento. Los adornos reúnen una buena colección de cuentas de collar, entre las que predominan las discoidales. Asimismo, se han registrado fragmentos de recipientes cerámicos lisos, sin decoración.




Katillotxu I-eko hilobi ostilamendua: armadura geometrikoak, aizkora leundua eta ijeki edo aiztoa. / Ajuar funerario de Katillotxu I: armaduras geométricas, hacha pulimentada y lámina o cuchillo.

Katillotxu I-eko paisaia azken Neolitoan 4 El entorno paisajístico de Katillotxu I en el Neolítico final

Katillotxu I-en jasotako polenaren azterketak erakusten du monumentua eraiki zen unean paisaia irekia zela, gune hezeak ugari zirela, eta zuhaitz-estratua %30 eta %40 artekoa zela. Zuhaitz estaldura hosto-erorkorreko baso mistoa da, eta gehien zegoen zuhaitza hurritza zen, eta harekin batera palnta, pagoa, urkia, haritza, pinua, etab. Belar-zuhaixken estratuan erikazeoak eta gramineoak dira nagusi.

El estudio del polen contenido en Katillotxu I refiere, en el momento de construcción del monumento, un paisaje abierto con presencia de zonas húmedas, oscilando el estrato arbóreo entre el 30 y el 40%. La cubierta arbórea se compone de un bosque caducifolio mixto con predominio del avellano, acompañado de aliso, haya, abedul, roble, pino, etc. En el estrato herbáceo-arbustivo destacan las ericáceas junto a las gramíneas.



El dolmen de Katillotxu V: un monumento megalítico decorado

El dolmen de Katillotxu V: un monumento megalítico decorado

Katillotxu V trikuharria 2002an aurkitu zuten AGIRI Arkeologia Elkarte kideek, eta haren indusketa arkeologikoa 2006 eta 2008 urteen artean burutu zen, J.C. López Quintana eta A. Guenaga Lizasuk zuzenduta.

El dolmen de Katillotxu V fue descubierto en 2002 por miembros de AGIRI Arkeologia Elkarte y su excavación arqueológica se llevó a cabo entre los años 2006 y 2008, bajo la dirección de J.C. López Quintana y A. Guenaga Lizasus.



Katillotxu V monumentua, indusketa arkeologikoa ondoren. / Monumento de Katillotxu V tras la excavación arqueológica.

Arquitectura 1

Katillotxu V monumentuak 12 metroko diametroa eta 0,75 metroko altuera ditu. Oin plano laukizuzen luzexkadun hilobi ganbara du, 2,20 metro luze eta 0,80 m zabal dena, Hego-ekialdera orientatua. Katillotxu V-eko arkitekturak alde nabarmenak ditu Katillotxu I-ekoarekin alderatuz gero. Katillotxu V-eko bolumena eta monumentaltasuna lurrezko nukleoa jarri lortu zen, eta nukleo horren erdian sartu zuten hilobi ganbara. Monumentuaren azalera ingurua hareharrizko harkoskoz egindako geruza batez estali zen, eta horrela lortu zuten harrizko monumentuaren irudia, askoz lan gutxiago eginenez. Tumuluaren ingurua, ezkata gisa, posizio azpi-bertikalean, inbrikaturiko harkoskoen bitartez antolatu da. Kanpoaldeko perimetroa, bertikalean, peristalito gisa, kokatutako harkoskoen eraztun ez jarraituak mugatzen du.

El monumento megalítico de Katillotxu V posee unas medidas de 12 metros de diámetro por 0,75 m de altura. Alberga una cámara sepulcral de planta rectangular alargada, de 2,20 m de longitud por 0,80 m de anchura, orientada al Sures-te. La arquitectura de Katillotxu V presenta diferencias notables con respecto a Katillotxu I. El volumen y monumentalidad de Katillotxu V se consigue mediante la colocación de un núcleo de tierra, en el centro del cual se inserta la cámara funeraria. La parte superficial del monumento se recubre con una coraza de bloques de arenisca, mostrando la imagen de un monumento de piedra, conseguido con una menor inversión de trabajo. El área tumular se organiza por medio de bloques imbricados a modo de escamas, en posición subvertical, delimitados en su perímetro exterior por un anillo discontinuo de bloques colocados en posición vertical, a modo de peristalito.

Material arkeologikoa 2 Los materiales arqueológicos

Katillotxu V trikuharriak ez du giza aztarnarik kontserbatu, lurzorua azidotatua dela eta. Eta hilobi erabilerarekin lotutako ostilamendu arkeologikoa, ganbara barruan aurkitu den suharrizko ijeki edo aizto batera mugatzen da. Bertan ez dugu arpilatzen aztarnarik hauteman. Hilobi ostilamendua urria da, megalitoko aberastasun grafikoarekin eta antolakuntza sinbolikoarekin alderatuz.

El dolmen de Katillotxu V no ha conservado restos humanos por la acidez del suelo. Y el ajuar arqueológico asociado al uso funerario del monumento se limita a una lámina de sílex, localizada en el interior de la cámara, donde no se han constatado evidencias de remociones o saqueos. Un ajuar funerario pobre, que contrasta con la riqueza gráfica y la organización simbólica del megalito.



(2) Ganbarako 1 hilarriaren kalkoa eta argazki-lehengoratztea. / Calco y restitución fotográfica de la estela camerale I.



(3) Tumuluko hilarrien kalkoa eta argazki-lehengoratztea. / Calco y restitución fotográfica de las estelas del túmulo.

Katillotxu V trikuharriaren apainketa 3 La decoración del dolmen de Katillotxu V

Katillotxu V-ek egin duen ekarpen nagusia, monumentuaren bi guneetan, testuinguruan, agertzen diren apaindutako zortzi pieza aurkitu izana da. Monumentuaren bi gune horiek ganbara eta tumulua dira. Aurkitutako elementuen artean, ganbara barruan azpimarragarria da burualdeko harlauza (1); motibo grabatu nagusia arma bat du, antzekotasun nabarmena duena palma-puntun tipologiarekin, pike-teatu eta abrasio teknikaz landua. Ganbara barruan hilarri tinkatua (2) agertu zen, eta horrek erakusten du hilobi barrutia ukitu gabe dagoela. Ahurgune nabarmena du gainaldean, eta bertan banda paralelotan antolatzen diren zenbait lerro ebaki daude. Ahurgune hori joera obala duen eta oso erregularrak den eta piketeatu finez lortuta dagoen ertzak mugatzen du. Apaindutako beste bi harlauzek, piketeatu teknika erabiliz lortutako gai zirkularrak eta zentrokideak biltzen dituzte. Tumulu barruan, monumentuaren kanpoaldean, giza itxurako lau pieza txiki agertu dira (15 eta 30 cm artekoak), monumentuaren gune irekitik jasotakoak (3).

La aportación más relevante de Katillotxu V ha sido el descubrimiento de un conjunto de ocho piezas decoradas, que aparecen en contexto y organizadas en dos espacios del monumento: la cámara y el túmulo. Entre los elementos decorados al interior de la cámara destaca la losa de cabeceza (1), que posee un motivo grabado principal, un arma, que se asemeja de forma explícita a la tipología de las Puntas Palmela, trabajada con técnica de piqueteado y abrasión. Dentro de la cámara aparece una estela hincada (2), que certifica el carácter intacto del recinto sepulcral. Presenta una fuerte concavidad en la zona superior, donde aparecen una serie de líneas incisas organizadas en bandas paralelas. Otras dos losas decoradas incluyen, mediante la técnica de piqueteado, temas circulares y concéntricos. Dentro del túmulo, en la parte exterior del monumento, aparecen cuatro piezas antropomorfas de tamaño pequeño (entre 15 y 30 cm de longitud máxima), procedentes del área abierta del monumento (3).

Kronologia 4 Cronología

Katillotxu V-ean C14 erabiliz datatu ditugu hilobi ganbararen Hego-ekialdean piztu zen su baten aztarnak. Ziurrenez sua erito baten barruan piztuko zen. Datazioaren emaitzak Kristo Aurreko III. milurtekoaren hasierara garamatza (data kalibratuetan), Kalkolitoa edo Brontze Aroa.

En Katillotxu V hemos datado por C14 los restos de un fuego que se encendió, muy posiblemente con un sentido ritual, en el sector Sureste de la cámara sepulcral. El resultado nos sitúa en los inicios del III Milenio antes de Cristo, durante el Calcolítico o Edad del Cobre.

Textuak / Textos: J. C. López Quintana. Argazkiak / Fotos: J. C. López Quintana, P. Bueno; R. de Balbín.

Mapa: Orbela. Itzulpena / Traducción: Erroteta. Diseinua / Diseño: Gráficas Amorebieta.

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAIA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA

